

1763

AGINDUA, 1993ko maiatzaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetako curriculum-egokitzapenak araupetzen dituena.

Bere 13. atalean Euskal Autonomi Elkarterako Haur Hezkuntzaren curriculum-a xedatzen duen Abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretuak, eta 14. eta 15. ataletan Lehen Hezkuntzaren curriculum-a xedatzen duen Abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretuak, curriculum-egokitzapenak egiteko aukera adierazten dute, ikasleen hezkuntza-beharrei erantzun ahal izateko.

Era berean, aipatu ataletan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Agindu bidez, curriculum-egokitzapen horiek egitea nori dagokion erabakiko du.

Curriculum-Egokitzapen Indibidualak programazioaren elementu batean edo gehiagotan ikasle baten hezkuntza-behar bereziei erantzuteko eginiko aldakuntzen multzoa izango lirakeke.

Hezkuntza-sisteman, eta irakaskuntza derrigorrezko eta muinbakarrean ikasle guztiek Helburu Orokor berberak lortu behar dituztenez, ikasle baten hezkuntza-behar bereziei buruz hitzegiteak zera inplikatzeko du, honek, bere hezkuntza, gizarte eta famili testuinguruan, laguntza edo baliabide pedagogiko, material edo pertsonal batzuk behar dituela aipatu hezkuntza-helburuak lortzeko.

Beraz, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak ikasleari eskaintzen zaion hezkuntza-erantzunak bere garapen indibidual eta soziala ahalik eta gehien ahalbidetzen duten estrategia egokiak emateko tresnak lirakeke, bere erreferentzia-taldearen funtzionamenduaren arabera.

Ikuspegi honetatik, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak arautzeko beharrak arrazoi desberdinak ditu:

- Ikasle guztiei ahalik eta eskolaratze onena eskaintzeko Administrazioak duen betebeharra, orokorki ezarritako curriculum-a ahalik eta gehien errespetatuz.
- Ikasleen esku dauden hezkuntza-baliabideak aurrikusi, planifikatu eta hornitzeko beharra, eta halaber beren erabilera zuzena.

Abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretuaren Lehen Azken Xedapenak eta Abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretuaren Lehen Azken Xedapenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari ematen dizkioten eskuduntzez baliatuz, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculum-egokitzapenaren lanketa, garapen eta onespenerari dagozkien alderdi desberdinak ordenatzearen,

XEDATU DUT:

1. atala. – Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sai-

1763

ORDEN de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Educación Universidades e Investigación, por la que se regulan las adaptaciones curriculares en las etapas de Educación Infantil y Primaria.

El Decreto 236/1992 de 11 de agosto, por el que se establece el currículo de la Educación Infantil para la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su artículo 13 y el Decreto 237/1992 de 11 de agosto, por el que se establece el currículo de la Educación Primaria, en sus artículos 14 y 15, plantean la posibilidad de realizar adaptaciones curriculares como respuesta a las necesidades educativas de los alumnos.

Igualmente, en los citados artículos se establece que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, determinará mediante Orden, a quien compete autorizar dichas adaptaciones curriculares.

Por Adaptaciones Curriculares Individuales se entiende el conjunto de modificaciones realizadas en uno o en varios de los elementos de la programación para responder a las necesidades educativas especiales de un alumno.

Dado que dentro del sistema educativo, y en una enseñanza comprensiva y obligatoria, todos los alumnos deben conseguir los mismos Objetivos Generales, hablar de necesidades educativas especiales de un alumno implica considerar que éste, en el contexto educativo, social y familiar en el que se encuentra, necesita una serie de ayudas o recursos pedagógicos, materiales o personales, para que alcance dichos fines educativos.

Las Adaptaciones Curriculares Individuales se consideran, pues, como las estrategias adecuadas para facilitar que la respuesta educativa ofertada al alumno posibilite al máximo su desarrollo individual y social, de forma acorde con el funcionamiento de su grupo de referencia.

Desde esta perspectiva la necesidad de regular las Adaptaciones Curriculares Individuales viene dada por diferentes motivos:

- El deber de la Administración de velar porque se ofrezca la mejor escolarización posible a todos los alumnos, respetando al máximo el currículo establecido con carácter general.
- La necesidad de prever, planificar y dotar los recursos educativos a disposición de los alumnos, así como de garantizar su correcta utilización.

Por todo ello, en virtud de la autorización que la Disposición Final Primera del Decreto 236/1992 de 11 de agosto y la Disposición Final Primera del Decreto 237/1992 del 11 de agosto que le confieren al Consejero de Educación, Universidades e Investigación, y con el objeto de ordenar los diferentes aspectos concernientes a la elaboración, desarrollo y aprobación de las adaptaciones curriculares en la Educación Infantil y Educación Primaria,

DISPONGO:

Artículo 1. – La presente Orden será de aplicación en

laren kudeaketa-eremuan kokatuta dauden Ikastetxe guztietan, publiko zein pribatuetan, eta Hezkuntza-Sistemaren Antolaketa Orokorreko Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako Haur eta/edo Lehen Hezkuntzari dagokion irakaskuntza ematen dutenetan aplikatuko da Agindu hau.

2. atala.- 1.- Curriculum-Egokitzapen Indibidualak programazioaren elementu batean edo gehiagotan ikasle baten hezkuntza-behar bereziei erantzuteko eginiko aldakuntzen multzoa dira.

2.- Curriculum-Egokitzapen oro ikaslea eskolaratuta dagoen hezkuntza-testuinguruaren ebaluazioa egin ondoren burutuko da. Curriculum-egokitzapena, ebaluazio honen ondorioz, ikasgelako programak ikasle batek planteatzen dituen hezkuntza-beharrei erantzuten ez diela uste denean izango da beharrezkoa. Dena den, programan egin beharreko aldakuntzak desberdinak izango dira ikasle bakoitza, ikasgela eta eskolaratuta dagoen Ikastetxearen berariazko ezaugarrien arabera.

3.- Hezkuntza-testuinguruaren ebaluazioa egiterakoan, ikaslearen hezkuntza-beharrei erantzuteko aldatu beharreko curriculum-elementuak zeintzuk diren, eta halaber aldakuntza hauen zentzua zein den, erabakiko da. Aldatzea beharrezkoa izan daitekeen elementuen artean irakas-ikaskuntza iharduerak, metodologia, curriculumerako sarbide-baliabideak -materialak edo pertsonalak-, ikasgelako edo Ikastetxeko antolaketa, ebaluazio-irizpide, modu edo oneak, edo helburuak eta edukinak daude. Azken hauei dagokienez, hartuko den erreferentzia ikaslea eskolaratuta dagoen Zikloa izango den (oso esanguratsuak ez diren Curriculum-egokitzapenak) edo ziklo edo etapa desberdin bat izango den (Curriculum-egokitzapen esanguratsuak) erabaki beharko da.

3. atala.- 1.- Lehen Hezkuntzaren ebaluazioa arautzen duen Aginduaren hamargarren atalak xedatutakoari jarraiki; «Oso esanguratsuak ez diren curriculum-egokitzapenak» ikaslea eskolaratuta dagoen ziklo bera erreferentzia gisa hartzen duten curriculum-elementu bat edo gehiago ukitzen dituztenak dira.

2.- Oso esanguratsuak ez diren Egokitzapenak Ikastetxeko profesionalen taldeak egingo ditu, Zuzendaritza-Taldea jakinaren gainean egongo delarik; Ikastetxean bertan geratuko dira artxibatuta eta ez dute Ikastetxearen esparrua gainditzen duen inolako izapiderik beharko.

3.- Oso esanguratsuak ez diren curriculum-egokitzapenak ikaslearen Espediente Pertsonalaren zati izango dira eta bere Oinarrizko Hezkuntzaren Eskolaratze Liburuan eta Ebaluazio-Aktetan azalduko dira, egokitzapen-neurriei dagozkien laukietan «H.E.» (Hezkuntza-Errefortzu) siglak agertuko direlarik.

4.- Kasu hauetan, ikaslearentzako hezkuntza-erantzuna ohizko testuinguruan emango da beti, Ikastetxeko profesional desberdinen balizko esku hartzeaz, hauek esku hartzearen plangintza tutorearekin batera

todos los Centros, tanto públicos como privados, situados en el ámbito territorial de gestión del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que imparten las enseñanzas correspondientes a la Educación Infantil y/o la Educación Primaria, establecidas en la Ley Orgánica 1/1990 de 3 de octubre de Ordenamiento General de Sistema Educativo.

Artículo 2.- 1.- Se entiende por Adaptaciones Curriculares Individuales el conjunto de modificaciones realizadas en uno o en varios de los elementos de la programación para responder a las necesidades educativas especiales de un alumno.

2.- Toda adaptación curricular deberá ir precedida de una evaluación del contexto educativo en el que el alumno esté escolarizado. La adaptación curricular será necesaria en aquellas situaciones en las que, a raíz de esta evaluación, se considere que el programa del aula no responde a las necesidades educativas que un alumno plantea. Sin embargo, las modificaciones que habrá que realizar en el programa serán diferentes según las características específicas de cada alumno, del aula y del Centro en el que esté escolarizado.

3.- Al realizar la evaluación del contexto educativo se decidirá cuáles son los elementos del currículo que hay que modificar para responder a las necesidades educativas del alumno, así como el sentido de estas modificaciones. Entre los elementos del currículo que puede ser necesario modificar están las actividades de enseñanza-aprendizaje, la metodología, los recursos de acceso al currículo -materiales o personales-, la organización del aula o del Centro, los criterios, formas o momentos de evaluación, o los objetivos y contenidos. Al referirse a estos últimos, habrá que decidir si la referencia que se tomará será la del Ciclo en el que está escolarizado el alumno (Adaptaciones curriculares poco significativas) o la de algún ciclo o etapa diferentes (Adaptaciones curriculares significativas).

Artículo 3.- 1.- De acuerdo con lo establecido en el artículo décimo de la Orden por la que se regula la evaluación en la Educación Primaria; por «Adaptaciones poco significativas del currículo» se entienden aquellas que afecten a uno o varios de los elementos curriculares, siempre que tengan como referencia el mismo ciclo en el que esté escolarizado el alumno.

2.- Las Adaptaciones poco significativas serán realizadas por el equipo de profesionales del Centro, con conocimiento del Equipo Directivo; quedarán archivadas en el propio Centro y no necesitarán de ningún trámite que supere el marco del Centro.

3.- Las Adaptaciones curriculares poco significativas pasarán a formar parte del Expediente Personal del alumno y se reflejarán en su Libro de Escolaridad de la Educación Básica y en las Actas de Evaluación, mediante las siglas «R.E.» (Refuerzo educativo) en las casillas correspondientes a las medidas de adaptación.

4.- En estos casos, la respuesta educativa al alumno se proporcionará siempre en el contexto ordinario, con la posible intervención de distintos profesionales del propio Centro, que colaborarán con el tutor o tutora en

egin edo zuzenean esku hartuko dutelarik.

4. *atala*.– Ikastetxean normalean ez dagoen baliabide materialen bat (egokitutako altzariak, material didaktikoa...) edo Ikastetxekoa ez den profesional espezializaturen bat (logopeda, fisioterapeuta, laguntzailea...) behar duten oso esanguratsuak ez diren Curriculum-egokitzapenen kasuan, ondoko prozedura jarraituko da bere onepenerako.

A.– Tutoreak, irakasleak (ikaslearen erreferentzia-taldeko irakasleak, kontsulta-irakaslea, irakasle laguntzailea eta ikasketa-burua) eta Pedagogi Aholkularitzategiko Talde Profesionalitzak eginiko ebaluazioa oinarritzat hartuz, azken honen aholkularitzaz, beharrezkoak diren curriculumaren aldakuntzak definitzen ditu.

B.– Ikastetxeren Zuzendariak Curriculum-egokitzapenaren proposamena P.A.T.era igorriko du, I. Eraskinaren arabera.

C.– Talde Profesionalitzak informe bat burutuko du, bertan egindako egokitzapenarekiko adostasuna jasoz, edo aldatu beharreko alderdiak proposatu, ardatz diagnostikoak eskaini eta hezkuntza-behar berezien sintesia egin, eta halaber II. Eraskinaren ereduaren arabera beharrezkotzat jotzen dituen baliabide material eta/edo pertsonalak proposatuko dituelarik.

D.– P.A.T.eko Zuzendariak curriculum-egokitzapenaren kopia, T.P.A.ren txostenarekin, Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Buruzagitzara igorriko du, honek Ikastetxearen baliabide globalak kontuan harturik dagozkion erabakiak hartuko dituelarik.

5. *atala*.– 1.– Lehen Hezkuntzaren ebaluazioa arautzen duen Aginduaren hamargarren atalak xedatutakoari jarraiki; «Curriculumaren Egokitzapen esanguratsuak» ikaslea eskolaratuta dagoen zikloa ez dena erreferentzia gisa hartzen dutenak dira.

2.– Curriculum-egokitzapen esanguratsu orok ondoko hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- Egokitzapena egiten zaion ikaslearen datuak eta inplikaturako profesionalenak, kasu guztietan erreferentzia-zikloa eta ikaslea eskolaratuta dagoen kurtsua zehaztuz.

- Bere erreferentzia-taldearekiko, ikaslearen gaitasunak.

- Ikaslearen hezkuntza-behar berezien definizioa.

- Zikloan zehar landu beharreko helburu eta edukinak jarraituko dituen curriculum egokitua edo desberdinkatua, arloak edo esperientzia-eremuak zehaztuz.

- Erabiliko diren ebaluazio-irizpide, modu eta uneak, eta halaber egokitzapenaren beraren jarraitaren plangintza.

Agindu honetako I. Eraskinean, Curriculum-egokitzapen esanguratsu bat barne hartu behar duten gutxienezko elementuen eredu bat planteatzen da.

3.– Egokitzapen hauek lantzerakoan, tutorearekin batera Ikastetxeko eta Pedagogi Aholkularitzategiko

la planificación de su intervención o interviniendo directamente.

Artículo 4.– En el caso de las Adaptaciones curriculares poco significativas pero que precisen de algún recurso material que no exista habitualmente en el Centro (mobiliario adaptado, material didáctico...) o de la intervención de algún profesional especializado (logopeda, fisioterapeuta, auxiliar...) no adscritos al Centro, se seguirá el siguiente procedimiento para su aprobación.

A.– El tutor o la tutora, a partir de la evaluación realizada por el profesorado (profesores del grupo de referencia del alumno, consultor, profesor de apoyo y jefe de estudios) y el Equipo Multiprofesional del Centro de Orientación Pedagógica, define, con el asesoramiento de este último, las modificaciones del currículo que fueran precisas

B.– El Director del Centro enviará la propuesta de Adaptación curricular al C.O.P. de acuerdo con el Anexo I

C.– El Equipo Multiprofesional realizará un informe en el que hará constar su conformidad con la adaptación realizada, o propondrá los aspectos a modificar, aportará los ejes diagnósticos y la síntesis de necesidades educativas especiales y propondrá los recursos materiales y/o personales que considere necesarios según modelo del Anexo II.

D.– El Director del C.O.P. enviará copia de la adaptación curricular con el informe del E.M.P. a la Jefatura Territorial de Renovación Pedagógica quien tomará las decisiones pertinentes teniendo en cuenta los recursos globales del Centro.

Artículo 5.– 1.– De acuerdo con lo establecido en el artículo décimo de la Orden por la que se regula la evaluación en la Educación Primaria; por «Adaptaciones significativas del currículo» se entienden aquellas que tengan como referencia un ciclo o etapa diferente al que el alumno se encuentra escolarizado.

2.– Toda Adaptación curricular significativa deberá recoger al menos los siguientes apartados:

- Datos del alumno o alumna para quien se elabora, y de los profesionales implicados, especificando en todo caso el ciclo de referencia y el curso en el que el alumno se encuentra escolarizado.

- Las competencias del alumno o alumna con respecto al currículo de su grupo de referencia.

- La definición de las necesidades educativas especiales del alumno o alumna.

- El currículo adaptado o diferenciado que seguirá, especificando áreas o ámbitos de experiencia, objetivos y contenidos a desarrollar a lo largo del ciclo.

- Los momentos, formas y criterios de evaluación que se van a utilizar, así como la planificación del seguimiento de la propia adaptación.

En el Anexo I de la presente Orden, se plantea un modelo de los elementos mínimos que deben contener una Adaptación curricular significativa.

3.– En el proceso de elaboración de estas adaptaciones, colaborarán con el tutor o tutora distintos profesio-

profesional desberdinek lan egingo dute, hezkuntza-egoeraren ebaluazioa, somatutako hezkuntza-behar bereziei erantzuteko modua eta curriculum-egokitzapenaren jarraitetari begira.

4.- Ikaslearekin ohizko testuingurutik kanpo lan egitea inplikatzan duten eta ezaugarri hauek dituzten helburuen edo edukinen aldakuntza behar den guztietan, eta halaber ikasle batentzat curriculum desberdin bat lantzea beharrezkoa den kasuetan, ikasgela egonkorretan edo hezkuntza bereziko Ikastetxeetan eskolaratutako ikasleen kasuan adibidez, beharrezkoa izango da Curriculum-egokitzapen esanguratsua egitea.

5.- Curriculum-egokitzapen esanguratsu oro Pedagogi Aholkularitzategiak onartu beharko du, hurrengo atalean xedatzen den prozeduraren arabera.

6. *atala.* - Curriculum-egokitzapen esanguratsuek, onetsiak izateko, ondoko prozedura jarraituko dute:

A.- Tutoreak, irakasleak (ikaslearen erreferentzialdeko irakasleak, kontsulta-irakaslea, irakasle laguntzailea eta ikasketa-burua) eta Pedagogi Aholkularitzategiko Talde Profesionalantzak eginiko ebaluazioa onarritzat hartuz, azken honen aholkularitza, beharrezkoak diren curriculumaren aldakuntzak definitzen ditu, gutxienez I. Eraskineko informazioa jasoz eta diseinutako planarekiko ikaslearen aitaren, amaren edo legezko arduradunaren adostasuna barne hartuz.

B.- Ikastetxearen Zuzendariak Curriculum-egokitzapenaren proposamena P.A.T.era igorriko du.

C.- Talde Profesionalantzak informe bat burutuko du, bertan egindako egokitzapenarekiko adostasuna jasoz, edo aldatu beharreko alderdiak proposatu, ardatz diagnostikoak eskaini eta hezkuntza-behar berezien sintesia egin, eta halaber II. Eraskinaren ereduaren arabera beharrezkotzat jotzen dituen baliabide material eta/edo pertsonalak proposatuko dituelarik.

D.- P.A.T.eko Zuzendariak curriculum-egokitzapenaren kopia, T.P.A.ren informarekin, Ikastetxea kokatuta dagoen Mugapeko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora igorriko du.

E.- Ikuskaritzak Curriculum-egokitzapena ontzat ematen duen txostena burutuko du, edo aldatu beharreko alderdiak adieraziko ditu, III. Eraskineko ereduaren arabera.

F.- Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak espediente Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzara igorriko du, honek behin-betiko onetsiko duelarik, IV. Eraskinaren arabera, onesten ez bada aldatu beharreko elementuak zehaztuz. Eskaera Mugapeko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora iritsi eta hogeita hamar egun naturaletan Ikastetxeak erantzunik jaso ez badu, Curriculum-egokitzapena onartutzat emango da.

7. *atala.* - 1.- Onetsitako Curriculum-egokitzapena, eginiko informekin batera, ikaslearen Espediente Pertsonalaren zati izango dira eta bere Oinarritzako Hezkuntzaren Eskolaratze Liburuan eta Ebaluazio-Aktetan

nales del Centro educativo y del Centro de Orientación Pedagógica de cara a la evaluación de la situación educativa, forma de responder a las necesidades especiales detectadas y seguimiento de la adaptación curricular.

4.- Siempre que se precise una modificación de los objetivos o contenidos con estas características, que impliquen el trabajo con el alumno fuera del contexto ordinario, así como en aquellos casos en que sea preciso elaborar para un alumno un currículo diferenciado, como puede ser el caso de alumnos escolarizados en aulas estables o en Centros de educación especial, será preciso una Adaptación significativa del currículo.

5.- Toda Adaptación curricular significativa deberá ser aprobada por la Dirección de Renovación Pedagógica, según el procedimiento que se establece en el siguiente artículo.

Artículo 6.- Las Adaptaciones significativas del currículo seguirán el siguiente procedimiento para su aprobación:

A.- El tutor o la tutora, a partir de la evaluación realizada por el profesorado (profesores del grupo de referencia del alumno, consultor, profesor de apoyo y jefe de estudios) y el Equipo Multiprofesional del Centro de Orientación Pedagógica, define, con el asesoramiento de este último, las modificaciones del currículo que fueran precisas, recogiendo, al menos, la información del Anexo I, e incluyendo el acuerdo por parte del padre, madre o responsable legal del alumno con el plan diseñado.

B.- El Director del Centro enviará la propuesta de Adaptación curricular al C.O.P.

C.- El Equipo Multiprofesional realizará un informe en el que hará constar su conformidad con la adaptación realizada, o propondrá los aspectos a modificar, aportará los ejes diagnósticos y la síntesis de necesidades educativas especiales y propondrá, en caso de que considere necesario, los recursos materiales y/o personales precisos, según modelo del Anexo II.

D.- El Director del C.O.P. enviará copia de la Adaptación curricular con el informe del E.M.P. a la Inspección Técnica de Educación de la Circunscripción en la que se ubique el Centro.

E.- La Inspección elaborará un informe en el que dé su conformidad con la Adaptación Curricular o señalará los aspectos que hay que modificar, según el modelo del Anexo III.

F.- La Inspección Técnica de Educación remitirá el expediente a la Dirección de Renovación Pedagógica quien dará la aprobación definitiva, según Anexo IV, especificando en caso de no aprobación los elementos que hay que modificar. En el caso en que después de treinta días naturales de que la solicitud haya llegado a la Inspección Técnica de Educación de Circunscripción, el Centro no haya recibido ninguna comunicación, se considerará que la Adaptación curricular ha sido aprobada.

Artículo 7.- 1.- La Adaptación curricular aprobada, junto con los informes elaborados, pasará a formar parte del Expediente Personal del alumno y se reflejará en su Libro de Escolaridad de la Educación Básica y en las

azalduko dira, egokitzapen-neurriei dagozkien laukietan «C.E.I.» (Curriculum-Egokitzapen Indibidual») siglak agertuko direlarik.

2.- C.E.I.ren kopia bat gurasoei eta legezko arduradunei emango zaie. Desadostasunik balego, Hezkuntza Sailburuordearen aurrean errekurtso arrunta tarteratu ahal izango da.

8. atala.- Curriculum-egokitzapenak hezkuntza-ziklo baterako egingo dira; beraz, nahikoa zabalak izan beharko dute, ikasle baten eskolaratzea bi urtez definitu ahal izateko. Egokitzapen hauek aldiro aztertuko dira, eta kurtsoz aldatzerakoan behin gutxienez. Azterketok, lan-helburuak eta edukinen definizioaren oinarri den zikloaren erreferentzian aldakuntzaren bat egiten denean soilik, edo baliabideen erabilera desberdina planteatzen denean, beharko dute beste onespen bat.

9. atala.- Haur Hezkuntzaren bigarren zikloa bukatzen denean, eta Haur Hezkuntza araupetzen duen Aginduren 14. atalak adierazi bezala, Lehen Hezkuntzan hasteko adina egokitzeko aukera izango dute hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleek. Horretarako, beharrezkoa izango da egoeraren ebaluazioa, ikaslearen gurasoak edo legezko arduradunak jakinaren gainean egotea, zonako Talde Profesionalanitzaren informea eta Mugapeko Hezkuntza-Ikuskaritza Teknikoaren onespena, azkenik Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzaren baimena beharko delarik.

10. atala.- 1.- Curriculum-egokitzapen bat egin zaien Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitza bukatzerakoan, tutoreak, eta Ikastetxeko, Pedagogi Aholkularitzategiko inplikaturako irakasleak eta gurasoek edo legezko arduradunek ikaslearen eskolaratzeari jarraipena emateko modurik egokiena erabakiko dute, ziklo aldaketa komeni ote den, hurrengo kurtsoan Curriculum-egokitzapenik behar izango ote duen eta, kasu honetan, nolakoa izango den eta berau lantzeko nondik-norako nagusiak erabakiz.

2.- Aipatutako guztiek berretsitako eta Ikastetxearen zuzendariak sinatutako txostena, mugapeko Ikuskaritzaaren onespena jaso ondoren, ikaslearen Espediente Pertsonalari erantsiko zaio.

3.- Gurasoak edo legezko arduradunak hartutako erabakiekin bat ez badatoz, beren errekurtzioak Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Buruzagitzari egin ahal izango dizkiote.

11. atala.- Aurreko ataletan xedatutako azterketeaz gain, ikasle batek ziklo berri bati ekiten dionean (Haur Hezkuntzaren hasieran nahiz Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzarenean) curriculum-egokitu behar zaion erabaki beharko da. Balizko egokitzapena kurtsoaren lehen hiruhilekoan egin beharko da beti.

12. atala.- Agindu honetan aipatzen den informazioa erabiltzean, lehenetsuna izan behar du Konstitu-

Actas de evaluación, con las siglas «A.C.I.» (Adaptación Curricular Individual) en las casillas correspondientes a las medidas de adaptación.

2.- Se entregará copia de la A.C.I. a los padres o responsables legales. En caso de desacuerdo se podrá interponer recurso ordinario ante la Viceconsejera de Educación

Artículo 8.- Las adaptaciones curriculares se realizarán para un ciclo educativo, por lo que deberán ser lo suficientemente amplias como para definir la escolarización de un alumno por un período de dos cursos. Estas adaptaciones se revisarán de forma periódica, y al menos una vez al cambiar de curso. Las revisiones sólo requerirán una nueva aprobación cuando se produzca una modificación en la referencia al ciclo sobre el que se hayan definido los objetivos y los contenidos de trabajo, o cuando se plantee una utilización de recursos diferente.

Artículo 9.- Al finalizar el segundo ciclo de Educación Infantil, y tal como señala el artículo 14 de la Orden por la que se regula la evaluación en la Educación infantil, existe la posibilidad de adaptar la edad de comienzo de la Educación Primaria para aquellos alumnos con necesidades educativas especiales. Para ello, será preciso una evaluación de la situación, el conocimiento de los padres o responsables legales del alumno, un informe del Equipo Multiprofesional de zona y el visto bueno de la Inspección Técnica de Educación de Circunscripción, debiendo ser autorizado finalmente por la Dirección de Renovación Pedagógica.

Artículo 10.- 1.- Al finalizar cada uno de los ciclos de la Educación Primaria para los que se haya realizado una adaptación curricular, el tutor o la tutora, con el profesorado implicado del Centro, el Centro de Orientación Pedagógica y los padres o responsables legales decidirán la forma más adecuada de continuar la escolarización del alumno, determinando si es pertinente el cambio de ciclo, si el curso siguiente va a precisar una Adaptación curricular y, en este caso, el tipo de la misma y las líneas generales para su elaboración.

2.- El informe ratificado por todos los citados, firmado por el Director del Centro, y tras el visto bueno de la Inspección de circunscripción se adjuntará al Expediente Personal del alumno.

3.- En el caso en que los padres o responsables legales no estén de acuerdo con las decisiones tomadas, podrán dirigir sus reclamaciones a la Jefatura Territorial de Renovación Pedagógica.

Artículo 11.- Independientemente de las revisiones establecidas en los anteriores artículos, cuando un alumno comienza un ciclo nuevo (tanto al inicio de la Educación Infantil, como en cada uno de los ciclos de la Educación Primaria) habrá que decidir si necesita que se le adapte el currículo. La posible adaptación tendrá que realizarse siempre dentro del primer trimestre del curso.

Artículo 12.- En el manejo de la información objeto de la presente Orden debe primar el concepto de confi-

zioaren 18.1 Atalean jasotzen den konfidentzialtasun kontzeptuak.

13. atala. - 1.- Haur eta Lehen Hezkuntzan ez da salbuespenik izango ezein curriculum-arlotan. Edozein arrazoi dela eta (elbarritasun fisiko edo sentsorial larria, eskolaratzerik eza...) ikasle batek curriculumaren arlo edo gai jakin bat ikasteko ezintasun objektiboa badu, Curriculum-egokitzapen «esanguratsu» bat landuko da, Agindu honetan definitutako elementuak zehaztuko direlarik bertan, definitutako helburuak gaindituztat hartzeko ebluazio-irizpideak espreski adieraziz.

2.- Ikaslegoaren ebaluazioa, kasu guztietan, Curriculum-egokitzapenetan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak Agindu honen aplikazio eta garapenerako arauak eta beharrezko orientabideak emango ditu.

Bigarrena. - Agindu hau E.H.A.A.n argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko maiatzak 5.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

dencialidad que se recoge en el Artículo 18.1 de la Constitución.

Artículo 13. - 1.- En la Educación Infantil y Primaria no existirán exenciones en ninguna de las áreas curriculares. Cuando por cualquier motivo (importante disminución física o sensorial, ausencia de escolarización...) un alumno presente una imposibilidad objetiva para cursar una determinada área o materia del currículo, se elaborará una Adaptación curricular «significativa» en la que se especifiquen los elementos definidos en la presente Orden, indicando expresamente los criterios de evaluación para considerar superados los objetivos definidos.

2.- La evaluación del alumnado se hará, en todo caso, en función de los criterios establecidos en las propias Adaptaciones curriculares.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - El Consejero de Educación, Universidades e Investigación dictará las normas y dará las orientaciones precisas para la aplicación y desarrollo de la presente Orden.

Segunda. - La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el B.O.P.V.

Vitoria-Gasteiz, 5 de mayo de 1993.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

CURRICULUMA NORBANAKOARI EGOKITZEA

IKASLEAREN DATU PERTSONALAK:

1. DEITURA: 2. DEITURA:

IZENA: I.Er.zkia:

ESKOLATZEA: ETAPA: ZIKLOA: MAILA: JAIOTEGUNA:

ERREFERENTZI CURRICULUMA: ETAPA: ZIKLOA:

IKASTETXEA: KODEA:

CURRICULUMA EGOKITU DUTEN PROFESIONALAK:

TUTOREA:

LAGUNTZAKO IRAKASLEA:

IRAKASLE AHOLKULARIA:

P.A.T.:

.....

ZEIN ALDITARAKO EGITEN DA ? : / /(e) tik / /arte.

| CURRICULUM-EGOKITZAPENAREN GUTXIENEZKO EDUKINA | |
|-------------------------------------------------------|-------------------------------------|
| 1.-KASLEAREN GAITASUNAK | 2.-DAUZKAN HEZKUNTZA-PREMIAK |
| | |

3.-IKASLEAREN PROGRAMA

Curriculum-arloa edo esperientzi eremua:

| Helburuak | Erref. | Edukinak |
|-----------|--------|----------|
| | | |

(Erabili beharrezkoak diren orrialde guztiak)

4.-IKASLEAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**Curriculum-arloa edo esperientzi eremua:**

| Edk.erref. | Ebaluazio-irizpideak | H. lortutako data |
|------------|----------------------|-------------------|
| | | |

5.-IKASLEAREN EBALUAZIOAREN PLANGINTZA ETA CURRICULUM-EGOKITZAPENAREN JÄRRÄIPENA

a) Ikaslearen ebaluazioa

| | <i>Data</i> | <i>Nortzuk esku hartzen dute ?</i> |
|-------------------------------|-------------|------------------------------------|
| Zikloko 1. maila | | |
| Zikloko 2. maila | | |
| Zikloko 3. maila (Haur Hezk.) | | |

b) Baliabideen ebaluazioa

| | <i>Data</i> | <i>Nortzuk esku hartzen dute ?</i> |
|-------------------------------|-------------|------------------------------------|
| Zikloko 1. maila | | |
| Zikloko 2. maila | | |
| Zikloko 3. maila (Haur Hezk.) | | |

c) Curriculum-egokitzapenaren jarraipena

| | <i>Data</i> | <i>Nortzuk esku hartzen dute ?</i> |
|-------------------------------|-------------|------------------------------------|
| Zikloko 1. maila | | |
| Zikloko 2. maila | | |
| Zikloko 3. maila (Haur Hezk.) | | |

Data: _____ *Izpta.:* (Tutorea) _____ *O. E.:* (Ikastetxeiko Zuzendaria) _____

.....jn./and.ak,N.A.N. zkia.duenak,
 (Aita, ama edo legezko arduraduna)
 bere seme edo alabarentzat eginiko curriculum-egokitzapena ezagutzen du.

Data: _____ *Izpta.:* _____

.....Lurraldekozkoa.duen PATeko
Talde Multiprofesionalak ikaslearentzat
ikastetxeko irakasleek egindako curriculum-egokitzapena aztertu
 ondoren, honako hau erabaki du:

- egokia dela ikaslea zuzen eskolatzeko,
 Hezkuntzako..... Zikloan.
- ondoko alderdi hauek aldatu beharko liratekeela:

Diagnosiaren laburpena

Diagnosiaren ardatzak:

HPBen laburpena:

Beharrezko baliabideak

| Mota | Zeintzuk | Norentzat | Behar den denbora |
|----------------------|----------|-----------|-------------------|
| Materialak | | | |
| Giza- baliabideak | | | |

.....(e)n(e) koaren(e)an

T.M.P.

O. E. P.A.T.eko ZUZENDARIA

II. ERASKINA

..... Lurraldekozk. duen
bilguneko ikuskaritza Teknikoak,

..... ikastetxean,ko
(Etapia) (Zikloa) (Maila)
ikasten duen ikaslearentzako curriculum-
egokitzapena onesteko eskaeraren espedientea jaso ondoren,
ikuskaritza honen ustez:

- Aurkeztutako curriculum-egokitzapenak baldintza guztiak betetzen ditu onetsia izateko
- Aurkeztutako curriculum-egokitzapenean honako hauek aldatu edo osatu behar dira:

Data:

Izpta.:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak:

..... ikaslearentzat egindako
curriculum-egokitzapenari buruzko informe desberdinak azterturik

ERABAKI DU:

.....
mailetarako curriculum-egokitzapena ontzat ematea.

Curriculum-egokitzapena aurkeztu den bezala ontzat ez
ematea.

Data:

Izpta.:

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaria

IV. ERASKINA

ADAPTACION CURRICULAR INDIVIDUAL

DATOS PERSONALES DEL ALUMNO O ALUMNA:

APELLIDO 1: APELLIDO 2:

NOMBRE: N°.R.A.:

ESCOLARIZACION: ETAPA: CICLO: NIVEL: FECHA DE NACIMIENTO:

CURRICULO DE REFERENCIA: ETAPA: CICLO:

CENTRO: CODIGO:

PROFESIONALES QUE HAN PARTICIPADO EN SU ELABORACION:

TUTOR/A:

PROFESOR DE APOYO:

CONSULTOR/A:

C.O.P.:

.....

PERIODO DE TIEMPO PARA EL QUE SE REALIZA: / / al / /

CONTENIDO MINIMO DE UNA ADAPTACION CURRICULAR

1.-COMPETENCIAS DEL ALUMNO O ALUMNA

2.-NECESIDADES EDUCATIVAS QUE PRESENTA

3.-PROGRAMA DEL ALUMNO O ALUMNA

Area curricular o ámbito de experiencia:

| Objetivos | Ref. | Contenidos |
|-----------|------|------------|
| | | |

(Utilícese todas las hojas que sean precisas)

4.-CRITERIOS DE EVALUACION DEL ALUMNO O ALUMNA

Area curricular o ámbito de experiencia:

| Ref.cont. | Criterios de evaluación | Fecha consecución |
|-----------|-------------------------|-------------------|
| | | |

5.-PLANIFICACION DEL EVALUACION DEL ALUMNO O ALUMNA Y SEGUIMIENTO DE LA ADAPTACION CURRICULAR

a) Evaluación del alumno o alumna

| | <i>Fecha</i> | <i>Quiénes intervienen</i> |
|----------------------------------|--------------|----------------------------|
| 1º Curso del Ciclo | | |
| 2º Curso del Ciclo | | |
| 3º Curso del Ciclo (E. Infantil) | | |

b) Evaluación de recursos

| | <i>Fecha</i> | <i>Quiénes intervienen</i> |
|----------------------------------|--------------|----------------------------|
| 1º Curso del Ciclo | | |
| 2º Curso del Ciclo | | |
| 3º Curso del Ciclo (E. Infantil) | | |

c) Seguimiento de la adaptación curricular

| | <i>Fecha</i> | <i>Quiénes intervienen</i> |
|----------------------------------|--------------|----------------------------|
| 1º Curso del Ciclo | | |
| 2º Curso del Ciclo | | |
| 3º Curso del Ciclo (E. Infantil) | | |

Fecha:

Firma: (Tutor)

Vº Bº: (Director del Centro)

Don/ña: con D.N.I. nº conoce la Adaptación Curricular realizada

(Padre, madre o responsable legal)

para su hijo o hija:

Fecha:

Firma:

El Equipo Multiprofesional del C.O.P. N.º.... del Territorio de
 después de analizar la Adaptación Curricular elaborada para el
 alumno o alumna..... por el profesorado del Centro.....
 considera:

que es apropiada para la correcta escolarización del alumno
 durante el Ciclo de la Educación

que es necesario modificar los siguientes aspectos:

Síntesis diagnóstica

Ejes diagnósticos:

Síntesis de n.e.e.:

Recursos necesarios

| Tipo | Cuales | Para qué | Tiempo necesario |
|------------|--------|----------|------------------|
| Materiales | | | |
| Personales | | | |

En....., a de de

E.M.P.

Vº Bº DIRECTOR del C.O.P.

ANEXO II

La Inspección Técnica de Educación de la Circunscripción Nº..... del Territorio de,

Recibido el expediente de solicitud de aprobación de la Adaptación Curricular para el alumno o alumna que cursa del..... de en el Centro esta Inspección considera:

(Nivel) (Ciclo) (Etapas)

- Que la Adaptación Curricular presentada reúne todos los requisitos legales para su aprobación
- Que en la Adaptación Curricular presentada es preciso modificar o completar los siguientes elementos:

Fecha:

Firma:

La Dirección de Renovación Pedagógica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación:

Considerando los diferentes informes emitidos sobre la Adaptación Curricular Individualizada para el alumno:

.....

RESUELVE:

Aprobar la Adaptación Curricular presentada para los cursos:

.....

No aprobar la Adaptación Curricular en los términos en que ha sido presentada

Fecha:

Firma:

La Directora de Renovación Pedagógica

ANEXO IV